



OLAZTIKO INAUTERIKO III. MOZORRO-LEHIAKETA: OINARRIAK

OINARRIAK:

- 1- PARTE-HARTZAILEAK: Inauteriko III. Mozorro-Lehiaketan parte hartu ahal izango dute nahi duten koadrilek, taldeek eta 14 urtetik gorako lagun guztiek.
- 2- IZEN-EMATEA: Izen-ematea futbitoko pistan egingo da, eguerdiko 12:00etan. Horretarako, zinegotzi arduradunari parte-hartzeko asmoa jakinaraziko zaio. Taldea edo parte-hartzailea identifikatuko duen izen bat eman beharko da.
- 3- Zinegotzi arduradunak bozketak apuntatzeko orri bat emango die parte-hartzaileei. Orri hori 14:00ak baino lehen eman beharko zaio zinegotziari botoen zenbaketa egin dezan.
- 4- GAIAK: Mozorroen gaia librea izango da.
- 5- Lehiaketaren DATA: otsailak 17, larunbata.
- 6- Mozorroak orijinala izan beharko du, beste inongo desfilean inoiz parte hartu gabea.
- 7- Epaimahaia 2 zinegotzik eta Kultura eta Jaiak lantaldeko kide batek osatuko dute. Gainera, talde edo parte-hartzaile bakoitzak erabakian parte hartu ahal izango du: talde edo parte-hartzaile bakoitzak gehienez 20 puntu eman ahalko dizkie 3 talderi edo parte-hartzaileri. Talde batek ezin izango dizkio bere taldeari eman boto horiek.
- 8- Mozorroak baloratzeko orduan, honako hauek hartuko dira kontuan: orijinaltasuna, egindako lana, antzezpena eta mozorroaren osagarriak.
- 9- Epaimahaiak mozorroak aztertu eta baloratuko ditu, eta honako sari hauek emango ditu: 1.saria: 150,00 €; 2.saria: 100,00 € eta 3.saria: 50,00 €. Sariak PEFZ sariari atxikita daude.
- 10- EPAIMAHIAIAREN ERABAKIA: Epaimahairen erabakia 20:00etako dantzaldian jakinaraziko da.
- 11- Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta, egokitzen joz gero, sariren bat hutsik utzi ahal izango du.
- 12- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea, epaimahaiaren erabakiekin ados egotea eta edozein erreklamazio aurkezteari uko egitea dakar berarekin.
- 13- Oinarri hauetan ezarrita ez dagoenari dagokionez, aintzat hartuko da Kultura eta Festen Batzordearen irizpidea.
- 14- Datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, jakinarazten da jasotako datuak udal titulartasuna duen fitxategi batean sartuko direla, lehiaketa kudeatzeko eta zure interesekoak izan daitezkeen beste jarduera batzuen berri emateko. Halaber, jakinarazten da aukera dagoela datu horietara heltzeko, zuzentzeko, aurka egiteko eta ezeztatzeko, udaletxeko Erregistro Orokorrera jota (Gartzia Ximenez kalea. Olazti).